

junio 2009 ekaina

LASARTE-ORIA

berdea

62

Departamento de Medio Ambiente, Consumo, Comercio y Sanidad • Ingurumena, Kontsumo, Merkataritza eta Osasun Departamentua



3

Consume en verde / Kontsumitu berdean
Autokonpostajea

5

Entrevista / Elkarrizketa
Aitziber Sarasola
Educatorea ambiental

6

Sanidad / Sanitatea
Elikagai ekologikoak

7

Noticias / Albisteak
KIUB berria / Nueva OMIC

8

Monográfico / Monografikoa
"Señales para la compra
de vehículos

10

Residuos / Hondakinak
Herritarren pertzepzioaren
estudioaren emaitzak

Las 'señales' para la compra de vehículos

obligan contractualmente al consumidor

La negativa de los bancos a financiar 'echa marcha atrás' la adquisición del coche llegando a perder la entrega de dinero inicial si no se recoge esta opción como condicionante en el contrato.

Corren malos tiempos para el consumo. La crisis campa en los hogares de un gran número de ciudadanos obligados a frenar compras para las que ya habían depositado una señal previa. La OMIC (Oficina Municipal de Información al Consumidor) de Lasarte-Oria, con Mertxe Alzuguren como testigo, está recibiendo desde comienzos de año un alto número de consultas acerca de la posible devolución de señales. "Muchas personas vienen a consultar porque han dejado como señal una cantidad de dinero para la compra del coche, y al no concederle el préstamo para el pago no pueden efectuarla y no les quieren devolver el dinero", relata Mertxe.

El servicio jurídico que presta servicios a la Dirección de Consumo y Seguridad Industrial del Gobierno Vasco, y por ende, a los consumidores y usuarios que acuden a la OMIC en busca de asesoramiento previene de que la entrega de señales "confirma el perfeccionamiento de un contrato", y en consecuencia "el vendedor podría obligar a esta persona a llegar hasta el final del contrato, es decir, a obligarle a comprar el vehículo solicitado". Esta obligación contractual puede derivar "porque los contratos se perfeccionan por el mero consentimiento, y desde entonces obligan, no sólo al cumplimiento de lo expresamente pactado, sino también a todas las consecuencias que, según su naturaleza, sean conformes a la buena fe, al uso y a la ley", especifica Txetxu Urkiola, responsable del área de consumo del citado servicio jurídico.



Un recibo, sinónimo de contrato

Muchos consumidores y usuarios pueden sorprenderse de tales consecuencias, máxime cuando al entregar una señal de dinero para la compra de un vehículo, únicamente se le hace entrega de un recibo donde consta la cantidad, el nombre del comprador y la fecha. Con sólo estos datos, según Urkiola no hay margen para dudar de la existencia de un contrato. Por eso, al haber un pacto de compra "si no se establece expresamente otra cosa, las señales confirman el consentimiento prestado por el consumidor a la oferta presentada por el vendedor".

En el supuesto de que el comprador de un vehículo no pueda pagar la cantidad que resta de la señal porque no ha obtenido la financiación, el consejo desde la asesoría jurídica es el mismo, "estar atento al contenido del contrato", y aconseja incluir en el mismo la concesión del préstamo para la compra como una condición "suspensiva". Si así se recogiera en el contrato, "hasta que no se cumpla la condición indicada no pueden producirse sus efectos", es decir, si finalmente no se consiguiese la financiación, Txetxu Urkiola asegura que "el contrato quedaría resuelto sin producir efectos entre las partes, devolviéndose al consumidor la señal entregada".

Ibilgailuak erosteko 'seinaleek'

kontraktualki obligatzen dute kontsumitzailea

Bankuek finantzatzeari uko egiteak 'atzera eginarazten du' autoaren erosketan, eta hasierako diru-emaitza galtzea ere ekar dezake baldin eta aukera hori baldintza gisa jaso ez bada kontratuan.

baina baita, haren izaeraren arabera, fede onarekin, erabilerarekin eta legearekin bat datozen ondorio guztietara ere", zehaztu du Txetxu Urkiolak, aipatutako zerbitzu juridiko horren kontsumoko arloko arduradunak.

Garai txarrak dira kontsumorako. Krisia herritar askoren etxeetan gailendu da, eta zenbait erosketatan atzera egitera behar ditu, nahiz eta alde zuzeneko seinalea jarria izan horretarako. Lasarte-Oriako KIUB (Kontsumitzaileak Informatzeko Udalaren Bulegoa), Mertxe Altzuguren lekuko duela, urte-hasieratik kontsulta mordo bat ari da jasotzen, seinaleak itzultzeko aukeraren gainean. "Jende asko etortzen da kontsultatzera, autoa erosteko dirukopuru bat seinale moduan jarri dutelako, baina, pagatzeko mailegua ematen ez dienez gero, ezin dute ordaindu, eta ez diete dirua itzuli nahi", kontatu du Mertxek.

Eusko Jaurlaritzaren Kontsumoko eta Segurtasun Industrialeko Zuzendaritzari zerbitzuak ematen dizkion zerbitzu juridikoak (beraz, KIUBera aholku eske datozen kontsumitzaile eta erabiltzaileei ere ematen die zerbitzua) ohartarazten du ezen seinaleak entregatzeak "kontratu bat burutu dela baieztatzen du", eta, ondorioz, "saltzaileak obliga lezake pertsona hori kontratuaren bukaerara iristera, hau da, eskatu duen automobila erostera behartzea". Kontratzeko obligazio hori erator daiteke, "zeren kontratuak adostasun hutsarekin burutzen baitira, eta ordutik aurrera obligatu egiten dute, ez bakarrik espresuki itundutakoa betetzera,

Errezibo bat, kontratuaren pareko

Kontsumitzaile eta erabiltzaile askok ezustekoa har dezakete ondorio horiekin, batez ere zeren, ibilgailu bat erosteagatik diruzko seinale bat ematean, entregatzen zaion gauza bakarra errezibo bat baita, zenbatekoa, eroslearen izena eta eguna bakarrik ageri dituen. Datu soil horiekin, Urkiolak dioenez, ez dago biderik kontratu bat badagoela zalantzan jartzeko. Horregatik, erosteko itun bat dagoenez gero, "espresuki besterik ezartzen ez bada, seinaleek baieztatzen dute kontsumitzaileak adostasuna eman diola saltzaileak aurkeztutako eskaintzari".

Baldin eta ibilgailu baten erosleak ezin badu seinaleaz gainerako kopurua pagatu finantzaziorik lortu ez duelako, aholkularitza juridikotik ematen den aholkua berbera da, "kontratuaren edukari arretaz erreparatzea", eta aholkatzen du erosketarako mailegua ematea "eteteke" baldintza moduan sartzea bertan. Kontratuan hala ageri bada, "harik eta adierazitako baldintza betetzen ez den arte, ezin dira gertatu haren ondorioak"; alegia, azkenean ez balitz finantzaziorik lortuko, Txetxu Urkiolak ziurtatzen du "kontratu deuseztaturik geratuko litzatekeela, alderdien artean ondorioz sortu gabe, eta kontsumitzaileari itzuli egingo litzaiokeela emandako seinalea". ■